	VISION	AUDICION	LENGUAJE
Normal o déficit leve			
Déficit Moderado o grave con adaptación			
Déficit Total			

• Observaciones: _____

Fecha y firma.

ERMUKO UDALAREN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA ESKURATZEKO PROZEDURA

1. ORRIA

1 ZIOEN AZALPENA

Gure gizartean azken urteetan sortu diren hainbat faktorek egoera txarretan ere (mendekotasun-maila larria, gizarte-babesik eza...) bizitza bete-betea bermatzeko behar diren zerbitzuei buruzko gogoeta egitera eraman dute gizartea. Hor daude, adibidez, bizi-itxaropena luzatu eta adin-piramidea aldatu izana; adinekoen hazkunde demografikoa, garbia nahiz erlatiboa; familia-harremanetan sortutako aldaketen ondorioz, instituzio hori jadanik ez izatea senideak babesteko eragile nagusia (ez iraganean bezainbeste behintzat); eta hor dago, era berean, azken urteotan gizarte-zerbitzuek izan duten garapen eta bultzada handia.

Testuinguru orokor horretan, pertsonak behin eta berriro adierazten dute ahalik eta luzaroen jarraitu nahi dutela beren etxeetan, bizitza osoan izan duten erreferentziako gizarte-sareari eutsiz. Oso aintzat hartu beharreko kontua da hori, pertsonen mendekotasun-egoera areagotzen den heinean beharko dituzten laguntza-zerbitzuak zehazterakoan. Alabaina, etxeko inguruneak, etxerako sarbideek, komunitateko laguntza-zerbitzuek eta abarrek alderdi asko biltzen dituzte, eta nabarmen murrizten dute mendekotasuna edo desgaitasuna duen pertsonak bere bizitza behar bezala garatzeko aukera.

Eguneroko jarduerak egiten lagunduko duten bestelako zerbitzuak edo babes-elementuak erabilita ere, badago etxean eta komunitatean mendekotasuna eta desgaitasuna prebenitzeko eta halako kasuetan arreta egiteko funtsezko baliabide bat; orotariko beharrianetara egokitzen den elementua da, denboran zatikatzeko aukera ematen duena, premiazko esku-hartzeak egin ditzakeena eta zerbitzu-premiaren aldaketei erraz erantzuten diena. Bestela esanda, etxez etxeko laguntza-zerbitzua sistema horren oinarritzko zerbitzua da.

Zerbitzua eskuratzeko aukera-berdintasuna bermatu behar du herri-administrazioak, betiere eskatzaile bakoitzaren premia aintzat hartuta; ildo beretik, erabiltzaileak zer partaidetza ekonomiko izango duen zehaztu behar du, haren diru-sarrerak aintzat hartuta. Horrekin batera, zerbitzuari eta zerbitzuak jasotzeko eskubideei buruzko esparru garbia eskaini behar die herritarrei. Araudi honek, hain zuzen, hori guztia bildu nahi du, zerbitzua eskuratu nahi duten pertsonen beraien eskubide eta betebeharrak ulertzen lagunduko dieten elementu argi eta operatiboak eskainiz.

Etxez etxeko laguntza-zerbitzua (EELZ) arautzeko ordenantza honek ez du esan nahi Ermuko Udalak laguntza pertsonalerako beste zerbitzu batzuk (dela finantzaketa-sistemari lotuta, dela hartzaileari zerbitzua egokitze partaidetza aktiboa aitortuta) abian jartzeko aukera ixten duenik, pertsonen eta euren bizitza-premien arteko lotura eta oreka lortzeko bide berritzaileak jorratzeko.

Autonomia pertsonala sustatzeari eta Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak etxez etxeko laguntza-zerbitzua jasotzen du aukerako zerbitzuen artean, eskubidetza izendatuta. Ondorengo arau-garapenetan zerbitzu horrek eman beharreko gehienezko eta gutxienezko intentsitateak ere zehaztu dira, pertsonaren mendekotasun-maila aintzat hartuta.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen esku lagatzen du etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren ardura, eta Udalen eskumenez jartzen du, berriz, haren kudeaketa. Era berean, Legeak eskubide unibertsaltzat eta subjektibotzat xedatzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio- eta zerbitzu-katalogoan jasotako prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko, eta 2016-12-25etik aurrera (sistema unibertsal bihurtzeko

zehaztutako datatik aurrera) baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiek eska dezakete hori betetzea, administrazio- nahiz jurisdikzio-bideak erabiliz.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzu- eta prestazio-zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko baldintzak, irizpideak eta prozedurak arautzen ditu, eta EAEko herri-administrazioentzako betebeharrak xedatzen ditu horren harira, 33.2 a) 1.2. artikuluan. Horrenbestez, Ermuko etxez etxeko laguntza-zerbitzua eta zaintzaile nagusiarentzako atsedeenaren aldaera arautzea da ordenantza honen xedea, betiere lege-aldaketei eta eskariaren bilakaerari egokitzeko asmoarekin.

Beste alde batetik, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat, mendekotasuna duten pertsonak etxe-ingurunean zaintzearen alorrean gertatu ohi diren egoera bereziak direla eta (emakumeak hartzen baitu zaintza-lanaren ardura ia osoa), Ermuko Udalak zaintzaren banaketa ekitatiboa sustatzeko konpromisoa hartu du. Horretarako, gizonezkoek mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzan parte-hartze handiagoa izateko pizgarriak ezarriko ditu eta, aldi berean, emakume zaintzaileak lehenetsiko ditu EELZa eskuratzekoan. Ildo horretan, gainerako udal-politikan ezarri beharreko neurriei kalterik egin gabe, neurri zuzentzaile egokiak finkatuko dira, oro har, familiei laguntzeko zerbitzuak eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak artatzeko zerbitzuak arautzeko ordenantzetan.

2 LEHENENGO TITULUA

1. artikulua. Xedea.

Ermuko etxez etxeko laguntza-zerbitzua eta haren modalitate eta prestazio osagarri guztiak arautzea da ordenantza honen helburua.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Ordenantza honek arautzen duen zerbitzua Ermuan jorratuko da, alor horretako legeriak udalei gizarte-zerbitzuen alorrean aitortzen dizkien eskumenen esparruan. Honako hau da legeria: Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, eta autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea.

3. artikulua. Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren definizioa.

Etxez etxeko laguntza-zerbitzua zerbitzu integrala, balio anitza eta komunitarioa da. Eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak laguntzarik gabe burutzeko zailtasunak dituzten pertsonen zuzenduta dago, eta izaera prebentiboa, laguntzako edo errehabilitaziokoa eskaintzen die, beraien bizi-kalitatea hobetzeko asmoarekin. Batez ere etxeko lanei eta garbitasun pertsonalari lotutako funtzioen bidez gauzatzen da eta pertsonak bere etxean jarraitzea ahalbidetzen du, posiblea eta komenigarria den bitartean.

Laguntza pertsonala jasotzen dutenek edo ordenantza honen 13. artikuluko 1. eta 3. atalek zehazten dutenaren arabera mendekotasun-arriskuan daudenek jaso dezakete etxez etxeko laguntza.

ERMUKO UDALAREN ETXETZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA ESKURATZEKO PROZEDURA

1. ORRIA

4. artikulua. Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren helburuak.

Hona helburuak:

- Autonomia pertsonala mantentzea edo hobetzea, narriadura prebenitzea eta autonomia-galera orekatzea. Horretarako, pertsonaren beraren zaintza bermatzeko eta etxe-ingurunea bizigarritasun-baldintza egokietan egoteko hein bateko edo erabateko laguntza ematen zaio hartzaileari.
- Ahal den guztietan, pertsonak bere etxean ahalik eta luzaroen irauten laguntzea, bizi-kalitate onargarriarekin, ahalik eta gehien atzeratzeko ostatu-zerbitzuan edo egoitza-zerbitzuan sartzeko unea.
- Erabiltzaileak komunitate-ingurunean txertatzen laguntzea, inor bakartuta gelditu ez dadin.
- Arreta-sare naturala osatzen duten zaintzaileei laguntza eskaintzea.
- Familiako bizikidetzagiroa hobetzea, arriskua ekar dezaketen egoerak saihesteko esku-hartzeen bidez.
- Familian nahiz pertsonengan sor litezkeen krisi-egoera puntualei erantzutea.
- Beste zerbitzu batzuen esku-hartzea eska lezaketen bestelako premia-egoerak antzemateko bidea izatea.

5. artikulua. Printzipio orokorrak.

Hona hemen aipatutako zerbitzuak emateko jarduna arautzen duten printzipio orokorrak:

- Normalizazio- eta integrazio-printzipioa: zerbitzua erabiltzaileen etxebizitza-, familia-, gizarte- eta kultura-ingurunean emango da, eta, ahal den heinean, egun dauden baliabide normalizatuak erabiliko dira.
- Sustapen- eta autonomia-printzipioa: erabiltzailearen trebeziei ahalik eta luzaroen eustea ahalbidetu beharko da; ondorioz, ez dira haren ordeztu egingo berak egin ditzakeen eguneroko jarduerak.
- Partaidetza-printzipioa: mendekotasun-egoeran dagoen pertsonak arreta-plana prestatzen parte hartzeko ahalegina egingo da.
- Globaltasun-printzipioa: osoko arreta emango da eta, ildo horretan, balio anitzeko laguntza eskainiko da, erabiltzailearen askotariko beharrianak estaltzeko.
- Profesionalizazio-printzipioa: zerbitzuaren arduradunek nahiz zuzeneko arretako langileek kompetentzia profesional egokiak izango dituzte.
- Indibidualizazio-printzipioa: zerbitzuaren onuradun guztiek, euren egoeraren balorazioa eta diagnostikoa egin ondoren, beraiei egokitutako arreta-plan indibidualizatua eskuratuko dute.
- Osagarritasun-printzipioa: zerbitzu hori beste prestazio tekniko, ekonomiko eta teknologiko batzuekin batera egituratu ahal izango da, indarrean dagoen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren Dekretuan jasotakoarekin bat.
- Prebentzio-printzipioa: zerbitzua ematean, prebentzioaren alderdia ere hartu beharko da aintzat, erabiltzailea ez narriatzeko.
- Inklusio-printzipioa: zerbitzua ematean, onuraduna eta familia komunitate-ingurunean txertatzeko ekintzak aurreikusi ahal izango dira.

6. artikulua. Zerbitzuak eta prestazioak aldi berean erabiltzea

EELZ mendekotasunean laguntzeko gainerako zerbitzu guztiekin bateragarria izango da, salbu eta ostatu- eta egoitza-zerbitzuetan arreta iraunkorra eta zerbitzu horri lotutako prestazioa edota laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikoa jasotzen duten pertsonen kasuan.

Eguneko zentroaren zerbitzuarekin, zentroko atsedeen-zerbitzuarekin edo autonomia pertsonala sustatzeko programan sartutako jarduekin batera erabiltzen bada, intentsitatea murriztu egingo da, araudi honen 10. artikuluan jasotakoarekin bat.

7. artikulua. Zerbitzuak emateko modua

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak tokiko autonomia-printzipioa ezartzen du 4.2. artikuluko a) atalean, eta ondoren 9. artikuluan garatu. Ildo beretik, tokiko eskumenekoak diren gizarte-zerbitzuak (besteak beste etxez etxeko laguntza-zerbitzua) emateko eta kudeatzeko jarduera publikoa zuzendu behar duten eraginkortasunaren eta efizientiaren printzipioak finkatzen ditu 4.2. artikuluko k) atalean. Horiek horrela, Ermuko Udalak egokientzat jotzen dituen kudeaketa-bideak eta -formulak ezarriko ditu, indarrean dagoen gainerako legeria betetzeari kalterik egin gabe.

Horren harira, ordenantza honen I. kapituluaren bidez arautzen diren modalitateak ezartzen ditu etxez etxeko laguntza-zerbitzua emateko bidetzat.

3 BIGARREN TITULUA

3.1 I. kapitulua

3.2 ZERBITZUAN SARTZEN DIREN ETA KANPOAN GELDITZEN DIREN JARDUKETAK ETA BERAIEI EZAUGARRIAK

8. artikulua. Zerbitzuan sartzen diren eta kanpoan gelditzen diren jarduketak eta beraiei ezaugarriak

EELZn sartutako jarduketak honela sailkatzen dira:

A.- Etxeko laguntzako jarduerari lotutako jarduketak: laguntza, orientazioa edo zereginak zuzenean egitea.

Etxeko arretako jarduketatzat hartuko dira eguneroko bizitzako oinarritzko jarduera hauek egiteko laguntza, orientazioa edo zuzenean egitea:

- Elikadurari lotutakoak:
 - o «On egin» etxez etxeko janari-zerbitzua
- Jantziei lotutakoak:
 - o Arropa etxean garbitu eta eskegitzea.
 - o Norberaren arropa erreparatzea.
 - o Etxeko arropa erreparatzea.
 - o Arropa etxean plantxatzea.
 - o Arropa erostea.
- Etxeko mantentze-lanei lotutakoak:
 - o Etxebizitza garbitu eta mantentzea, eta horretarako produktuak erostea. Eguneroko garbiketara egokituko da.

ERMUKO UDALAREN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA ESKURATZEKO PROZEDURA

1. ORRIA

- o Espezializaziorik eskatzen ez duten etxeko konponketa txikiak.
- o Ohea egitea.

Zerbitzuaren titularra zerbitzuaren erabiltzaile ez diren beste senide edo pertsona batzuekin bizi bada, etxeko mantentze-lanek onuradunak erabiltzen dituen lekuak, gauzak eta tresnak hartuko dituzte barne.

B.- Norberaren zaintzari lotutako jarduketak: laguntza, orientazioa edo zereginak zuzenean egitea.

Etxeko arretako jarduketatzat hartuko dira eguneroko bizitzako oinarritzko jarduera hauek egiteko laguntza, orientazioa edo zuzenean egitea:

- Garbiketa eta higiene pertsonala, horren barruan sartuta norberaren arropa eta ohea aldatzea, pixoihalak aldatzea eta gorputza hidratatzea, eta pertsonaren hurreko ingurunea (logela eta bainugela) garbitzea.
- Ohetik jaikitze, oheratzeko eta altxatzeko laguntza.
- Jantziak eta elikadura.
- Medikak agindutako ahozko medikamenduak hartzen ote diren kontrolatzea eta jarraipena egitea.
- Etxe barruko joan-etorriak suspertu eta laguntzeko ariketa errazak.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuko langileen espezializazioa eskatzen ez duen zaintza higieniko-sanitarioa.
- Gorputz-jarrera aldatzea.
- Familia-antolamendua.

C.- «On egin» etxeko janariari lotutako jarduketa.

D.- Gizarte-laguntzako jarduketak: pertsona inguruko gizartean txertatzera bideratutako ekintzak, inor bakartuta ez geratzeko eta pertsonen segurtasun-sentimendua indartzeko.

Onuraduna zenbait arlotan trebatzeko jarduerak ere egin litezke:

- Higiene- eta osasun-ohituretan.
- Elikadura-ohituretan.
- Etxeko lanak egiteko ohituretan.

Beste jarduera osagarri batzuk:

Gizarte Diagnostikoa eta Arreta Plan Indibidualizatua egin eta gero, horren arabera gizarte-laneko teknikariek egokitzen ikusten badute, zerbitzuaren helburuak lortzeko derrigorrezkotzat jotzen diren bestelako jarduketak ere eman litezke, hala nola:

- Aldian aldiko garbiketa orokorrak.
- Etxetik kanpo laguntzea, baldin eta horretarako familia- edo lagun-sarerik ez badu, onuradunaren gestioak egiteko, joan-etorriak egiteko eta familiako edo komunitateko ekintzetan parte hartzeko: banku-gestioak zein osasun-alorrekoak, eskabideak, errekurtsoen izapideak, ikastetxeak eta gizarte-zentro espezializatuetaarako garraioa.
- Gizarte-hezkuntza alorreko laguntzak.

- Bestelako zerbitzuak, betiere udalaren gizarte-zerbitzuek baimentzen badituzte.

Zerbitzu honetatik kanpo gelditzen dira:

- Lagun egiteko eta paseatzera joateko zerbitzua, baldin eta horren helburua ez badator bat artikulu honen D letran zehaztutako jarduketekin.
- Etxe berean bizi diren familiako beste kide batzuk edo hurbileko pertsona batzuk artatzea, baldin eta zerbitzuaren erabiltzaileak ez badira.
- Etxean konponketa-lan handi samarrak egitea (pintatzea, horman papera jartzea, etxetresna elektrikoak konpontzea eta bestelakoak).
- Etxea garbitzea, zuzenean erabiltzaileak berak erabiltzen duenari lotuta ez badago eta bakarrik bizi ez bada.
- Zerbitzua gaez edo onuradun jakin bakoitzerako zehaztutako orduetaz harago ematea.
- Erabiltzailearen ohiko etxea ez den beste leku batera joatea haren bila, zerbitzu hori zereginen zerrendan agertzen ez bada.
- Osasun-alorreko eginkizunak edo lanak egitea eta, oro har, langileak ez duen espezializazio-maila eskatzen duten zeregin guztiak, hala nola, injezioa jartzea, tentsioa hartzea, zunda bat ipini edo kentzea, hein bateko ezagutza- eta espezializazio-maila eskatzen duen medikazioa ematea, erabiltzaileari ariketak egiten laguntzea edo sendaketak egitea.

Eta, oro har, profesionalen osasuna arriskuan ipintzen duten zeregin fisiko guztiak, hala nola guztiz ezinduta dagoen pertsona gorpil-aulkian esertzea edo ohetik erabat altxatzea. Azken kasu horretan, zeregin hori egin ahal izango da gaitasuna duen beste inor badago alboan edota laguntza tekniko egokiak baditu.

Era berean, jarduketa horietatik kanpo geratuko dira udal gizarte-zerbitzuek egindako Arreta Plan Indibidualizatuan aurreikusita ez dauden lan guztiak.

9. artikulua. Zaintzaile nagusiarentzako etxeko atsedeen-zerbitzua

A- Zerbitzuaren helburua:

Hauxe dakar: mendekotasun-arriskuan edo -egoeran dagoen pertsonak aldi jakin baterako etxez etxeko laguntza-zerbitzua eskuratzea, edota dagoeneko jasotzen badu, intentsitate-maila areagotzea.

B.- Zaintzaile nagusiarentzako etxeko atsedeen-zerbitzuaren definizioa

Laguntza ez-iraunkorra da, mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak zaindu eta beraiekin bizi diren senideei zuzendua, senide zaintzaileek eurentzako ordu batzuk eduki ditzaten. Horretarako, denbora-tarte horretan, egoki kualifikatutako langileen esku uzten dute zaintzen duten senidearen arreta.

C.- Zerbitzuaren ezaugarriak

ERMUKO UDALAREN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA ESKURATZEKO PROZEDURA

1. ORRIA

Ondoren zehaztuko da zerbitzuaren hasierako intentsitatea. Jarraian edo zatika erabil daiteke, astelehenetik ostiralera, jai-egunetan izan ezik, 08:00etatik 22:00etara.

Denbora-tarterik txikiena egunean bi ordukoa izango da, eta tarterik handiena egunean sei ordukoa, honako kategoria hauen arabera:

- Mendekotasun-arriskua duten pertsonak: 6 ordu urtean.
- I. graduako mendekotasuna aitortua duten pertsonak: 6 ordu urtean.
- II. graduako mendekotasuna aitortua duten pertsonak: 10 ordu urtean.
- III. graduako mendekotasuna aitortua duten pertsonak: 15 ordu urtean.

Intentsitate horiek urtean behin berrikusiko dira, kasuan-kasuan.

Zerbitzu horrek dirauen bitartean, arreta pertsonala eta zaintza baino ez ditu egingo etxeko laguntzaileak; izan ere, modalitate horretan ez dago jasota etxeko lanak egitea.

Etxeko atsedeen-zerbitzua doakoa izango da honako baldintza hauek betetzen dituzten onuradun guztientzat:

D- Zerbitzua eskuratzeko baldintzak:

- a) Bizkaiko Foru Aldundiak aitortutako mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dagoen pertsona baten senidea eta zaintzaile eta bizikide nagusia izatea.
- b) Ermuko udalerrian erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea.
- c) Mendekotasun-egoeran dagoen pertsona ez izatea egoitza-baliabide baten onuraduna.

E- Zerbitzua eskuratzea:

- a) Eskabidea: etxeko atsedeen-zerbitzua eskuratzeko, inprimaki normalizatuaren bidez egin beharko da eskaera Abiapuntun, esleitutako erreferentziako gizarte-langilearen aurrean kontsulta egin ondoren. Inprimakia interesdunak edo, hala badagokio, legezko ordezkariak sinatuko du.
- b) Dokumentazioa: eredu normalizatuan egindako eskaerarekin batera, 16. artikuluan zehazten den dokumentazioa erantsi beharko da.
- c) Espedientea tramitatzea eta erabakia hartzea: eskaera eta behar diren dokumentuak aurkeztu ondoren, baldintzak betetzen ote diren egiaztatuko dute gizarte-zerbitzuek eta erabaki-proposamena egingo dute, organo eskudunari aurkezteko. Proposamen hori eskatzaileari eta zerbitzua ematen duen enpresari jakinaraziko zaio.

Eskaera onartzen bada, urte natural horretarako zehaztutako etxeko atsedeen-orduen poltsaz baliatu ahal izango da eskatzailea.

10. artikulua. Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren ezaugarriak.

Nondik norakoa eta mugak

Mendekotasunaren aurreko prebentziorako baliabidea izatea da etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren funtsezko ezaugarrietako bat, modalitatea edozein izanik ere. Printzipio horrekin bat, ordenantza honen III. kapituluaren aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten pertsonak eskuratu

ahal izango dute, baina bazterrean utzi gabe autonomotzat baloratuta egon arren eguneroko bizitzan moldatzeko arazoak dituztenak ere (12. artikulua).

Adierazi berri denari kalterik egin gabe, indarrean dagoen legeria betetzeko asmoz, zerbitzua eskuratzeko lehentasuna izango dute, ordenantza honen 11. artikuluan onartutako gehienezko intentsitatearekin, Bizkaiko Foru Aldundiak mendekotasun-graduren bat aitortu dien edota mendekotasuna jasateko arrisku objektiboa duten pertsonak, araudi honen 3. artikuluan jasotako definizioaren arabera. Hala, pertsona horiek etxez etxeko laguntza-zerbitzua eskuratzeko eskubide subjektiboa dute, geroago zehaztuko den gehienezko intentsitatearekin.

Balorazio hori lortu ez eta autonomotzat jotzen diren pertsonak, baina aldi berean gizarte-zerbitzuek baloratutako baldintza bereziak dituztenak, zerbitzuaren onuradunak izan ahalko dira, baldin eta horretarako urtero finkatzen den udal-aurrekontuak aukera ematen badu.

Zerbitzua astelehenetik ostiralera emango da, urte osoan. Asteburuetan eta jaiegunetan ere emango zaie, salbuespen moduan eta gizarte-teknikariak hala baloratzen badu, mendekotasun handia (III. gradua) aitortu zaien pertsonak, ez badute laguntzeko seniderik edo pertsonarik, eta soil-soilik zaintza pertsonala egiteko.

Oro har, zerbitzua astelehenetik ostiralera emango da, 08:00etatik 22:00etara.

Udal gizarte-zerbitzuek erabakiko dute zer lekutan eta zenbat orduz emango dion etxeko laguntza-zerbitzua enpresa esleipendunak onuradun bakoitzari, aurrez zerbitzuok zehaztu dituzten lanak egiteko.

11. artikulua. Zerbitzuaren intentsitatea

Zerbitzuaren intentsitatea onuradunen premien ebaluazioaren arabera zehazten da, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun egoeran dauden Pertsonen Arretari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean eta haren arau-garapenean (39/2006 Legeak ezarritako mendekotasun-egoera baloratzeko baremoa onartu zuen otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuan) mendekotasun-gradu bakoitzerako finkatutako intentsitateak errespetatuta betiere.

6. artikuluan araututako prestazioen bateragarritasuna gertatzen bada, gehienez 7,5 orduko laguntza emango da etxe bakoitzeko, eta betiere zentrorra joatea bultzatzen duten arreta pertsonaleko jarduerak egiteko edo garraio espezializatuaren geroagokotzat zehaztu den punturaino laguntzeko eta bertan biltzeko.

Familia-ingurunekeo zaintzetarako prestazio ekonomikoarekin batera jasotzen bada, honako intentsitate hauek ezarriko dira, gehienez, etxez etxeko laguntzan:

- I. maila: 3 ordu astean.
- II. maila: 5 ordu astean.
- III. maila: 10 ordu astean.

Horiek horrela, hiru gradu (I, II eta III) finkatzen dira, bai eta horietako bakoitza eskuratzeko puntuazioak ere.

**ERMUKO UDALAREN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA
ESKURATZEKO PROZEDURA**

1. ORRIA

GRADUA	IZENA	GEHIENEZKO ZERBITZU- ORDUAK ASTEAN
III	Mendekotasun handia	17,5
II	Mendekotasun larria	10
I	Mendekotasun ertaina, mendekotasuna izateko arriskua, edo arazoak dituzten pertsona autonomoak	7,5
-	Gizartean baztertuta egoteko arriskua duten edo baztertuta dauden famihiak	10

**II. kapituluu
ERABILTZAILEEI BURUZ**

12. artikulua. Erabiltzailea nor den zehaztea

Honako hauek izan daitezke etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren onuradunak:

- Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak.
- Autonomia pertsonalean arazoak dituzten eta, beraz, eguneroko bizitzako jarduera batzuk egin ezin dituzten adineko pertsonak edo dibertsitate funtzionala dutenak.
- Gizartean baztertuta edo gatazka-egoeran geratzeko arriskuan dauden pertsonak edo famihiak.
- Gaixondoan (aldi baterako) dauden pertsonak.

Familia beraren barruan zerbitzuaren titularra aldatzen bada, familiaren beharrianen nahiz egoera sozialaren eta ekonomikoaren beste balorazio bat egin beharko da.

13. artikulua. Zerbitzua eskuratzeko baldintza orokorrak

1. Bizkaiko Foru Aldundiak mendeko pertsonatzat aitortua izatea eta etxez etxeko laguntza-zerbitzua jasota egotea Arreta Plan Indibidualizatuan. Foru Aldundiaren erabakiaren zain dauden pertsonen kasuan, aldi baterako etxez etxeko laguntza-zerbitzua tramitatzen hasteko aukera izango dute, erakunde horren aurrean eskaera egin dutelako ziurtagiria emanaz gero. Udalak ez du horren inguruko erabakirik hartuko Foru Aldundiaren ebazpen irmoa jaso arte.

2. Zerbitzu-eskaera egiten den egunean etxebizitza horretan erroldatuta egotea eta udalerrian erroldatuta jarraitzea zerbitzua jasotzen duen bitartean. Familiakoen artean txandaka zaintzen dituzten pertsonen kasuan, unean-unean zaintzaile nagusia den senideari ezarriko zaio baldintza hori.

3. Autonomotzat baloratutako pertsonak 100 puntuko balorazioa edo altuagoa lortu beharko dute, ordenantza honen 16.4 artikuluan horretarako ezarri den udal-baremoari jarraituz.

Halakoetan, zerbitzua eskuratu nahi duten pertsonak urtebetez egon beharko dute erroldatuta Euskal Autonomia Erkidegoan, eta eskaera egin aurreko azken sei hilabeteetan Ermuan.

4. Gaixondoan dauden pertsonak, adingabeak edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak badaude familia-unitatean, ez da beharrezkoa izango mendekotasun-egoeraren balorazioa egitea, baldin eta gizarte-diagnostikoan eta gizarte-laneko teknikariek egindako Arreta Plan Indibidualizatuan halaxe jasota badago.

Gainera, zerbitzua eskuratzeko, eskatzaileak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Etxe horretan bizitzea, bere etxea izan, zaintzaile nagusitzat jarduten duen senidearen etxea izan.
- b) Beharrezkoa bada, etxean baldintza egokietan jarraitzeko beste laguntza batzuk izatea.
- c) Etxebizitzaren egoerak ez galaraztea edo larregi zailtzea erabiltzaileak bertan jarraitzeko aukera, eta ez eragitea arriskurik pertsonari berari edota zerbitzua emango dutenei.
- d) Eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak eta jarduera instrumentalak egiteko laguntza behar izatea.
- e) Osasun-egoeraren ondorioz, ez behar izatea etengabeko laguntza osasun-instituzioetan.
- f) Ez jasatea jokabide-nahasmendurik eta ez izatea etxeko laguntzaileentzako arriskutsua izan daitekeen portaerarik.
- g) Gaixotasun infekzioso eta kutsakorra izanez gero, ez arbuiatzea dagokion tratamendua.

Familia-unitatean zerbitzua jasotzen duten pertsona guztiek bete beharko dituzte zerbitzua eskuratzeko baldintza orokorrak. Pertsona batentzako baino gehiagorentzako eskaera egiten bada, horietako bakoitzak bete beharko ditu finkatutako baldintzak.

14. artikulua. Onuradunen eskubideak

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizun eta kexen araubidea onartu zuen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuaren II. kapituluko lehen atalean finkatutakoaz eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan xedatutakoaz gain, honako eskubide hauek ere izango dituzte ordenantza honen bidez araututako etxez etxeko laguntza-zerbitzuen onuradunek:

- Gizarte-diagnostikoa eta Arreta Plan Indibidualizatuaren edukitzea eta bertan argi eta garbi jasotzea EELZaren funtzio-orria, zer zeregin eta zelako intentsitatearekin egingo diren adieraziz.
- Zerbitzuaren baldintzetan aldaketarik egonez gero, aurretiaz horren berri jasotzea.
- Zerbitzua ematen duen laguntzailea aldatzeko eskatzea, egoki justifikatuta.
- Zerbitzuaren baldintzak eta intentsitatea eskatzea, egoki justifikatuta.
- Hala badagokio, familian edo gizarte-ingurunean erreferentziako pertsona bat izendatzea, bera izan dadin erabiltzailearen ordezkaria zerbitzuari lotutako gestio guztietan (gorabeherak daudenean, aldaketak egin behar direnean...).

15. artikulua. Familia onuradunen betebeharrak

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartu zuen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuaren II. kapituluko Bigarren atalean finkatutakoaz eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan xedatutakoaz gain, honako betebeharrak ere izango dituzte ordenantza honen bidez araututako zerbitzuen onuradunek:

ERMUKO UDALAREN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA ESKURATZEKO PROZEDURA

1. ORRIA

Udal gizarte-zerbitzuei dagokienez:

- Gizarte-zerbitzuetako langileei familiaren egoera sozioekonomikoa baloratzeko dokumentuak helaraztea, eta euren etxebizitzara sartzen lagatzea, balorazio hori eta ondorengo jarraipen-bisitak egiteko.
- Zerbitzua ematen den lekuan egotea etxebizitza.
- Ez eskatzea aurretiaz adostuta ez dagoen prestaziorik, ez eta udal-ebazpenean sartuta ez dauden pertsonentzako arretarik ere.
- Udal-teknikariei denbora nahikoz jakinaraztea zerbitzua eskuratu eta gero sor litezkeen egoera pertsonalak, zerbitzua etetea eragin lezaketan lekualdaketak eta egoera sozioekonomikoaren aldaketa esanguratsu guztiak, ematen den zerbitzuaren edozein alderdi aldatzea eragin lezaketanak.
- Gizarte-laneko teknikariari jakinaraztea zerbitzua ematen duen etxez etxeko laguntzailearen inguruan antzemandako edozein gorabehera eta zerbitzuan eragin lezakeen edozein gaixotasun infekzioso edo kutsakor, zerbitzuko langileek beharrezko babes-neurriak har ditzaten.
- Emandako zerbitzuan zehaztutako epean, esleitu zaion prezioa ordaintzea, eta ordaintzea, halaber, eskatzaileari egotz dakioken arrazoi baten ondorioz egin gabe gelditu diren zerbitzuak ere.

Esleitu zaion EELZko langileei dagokienez:

- Zerbitzua ematen parte hartzen duten profesionalen lana ahalbidetzea, laguntzea eta zuzen eta begirunez tratatzea.
- Etxez etxeko langileen esku jartzea esleitutako etxeko lanak nahiz zeregin pertsonalak burutzeko behar dituzten tresnak eta materialak.

Betebehar horietako bat urratuz gero, zerbitzua amaitu edo bertan behera geldituko da, araudi honetan xedatutako prozedurarekin bat.

III. kapitulua.

ZERBITZUA ESKURATZEKO PROZEDURA

16. artikulua. Zerbitzua eskuratzea

16.1. Eskabidea

Etxez etxeko laguntza-zerbitzua eskuratzeko eskaera egin beharko da, inprimaki normalizatua (I. ERANKSINA) erabiliz, herritarren arretarako udal-zerbitzuan (Abiapuntun).

Interesdunak edo, hala badagokio, legezko ordezkariak sinatuta egon beharko du.

Eskaera aurkeztu aurretik, nahitaezkoa izango da kasuaz arduratzen den gizarte-laneko teknikariarekin elkartzeko. Eskatzaileak aurretiaz halakorik ez badu, gizarte-zerbitzuetako teknikariak pertsona horren gizarte-diagnostikoa eta arreta-plan indibidualizatua egingo ditu, erabaki-proposamena aurkeztu baino lehen.

Erabakia hartu aurretik, prozesuaren edozein unetan, interesdunak nahiz haren legezko ordezkariak eskaera bertan behera lagatzeko aukera izango du, borondate hori agerian ipintzen duen edozein bide erabiliz (besteak beste, tramitazioaz arduratzen den gizarte-laneko teknikariak sinatutako diligentziaren bidez, baldin eta eskatzailearekin bildu denean eskaera bertan behera lagatzeko asmoa adierazi badio; edota bide elektronikoak edo telematikoaz erabiliz, Administrazio elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak xedatutakoarekin bat). Hori eginez gero, espedientea amaitutzat eman eta artxibatu egingo da.

16.2. Dokumentazioa

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da eskatzaileari buruz eta, hala badagokio, familia-unitateko gainerako kideei buruz:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia, edo horren baliokidea den beste edozein identifikazio-agiri.
- Familia-liburua, baldin eta familia-unitatean 18 urtetik beherako kideak badaude.
- Mendekotasuna Baloratzeko Unitateak egindako balorazioa, hala badagokio.
- Hala badagokio, organo ofizial eskudunak emandako desgaitasun-ziurtagiria.
- Txosten medikoa, IV. eranskinean agertzen den eredu normalizatuaren arabera.
- Familia-unitateko kideen erroldatze-ziurtagiria.
- Egoera ekonomikoari buruzko datuak.
 - Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitortpenaren fotokopia edo, hala badagokio, halakorik egiteko obligaziorik ez duela dioen ogasun-ziurtagiria.
 - Pentsioa ordaintzen duen organismoak emandako pentsio-ziurtagiria, pentsio-mota eta pentsioaren zenbatekoa zehaztuta.
 - Aurrezki-libretak, kontu korronteak, bonoak, akzioak, epe finkorako orriak eta abar dituen banku-erakundeen posizio eguneratuen ziurtagiria.
 - Azken nominaren edo nominen (nomina aldakorra bada) fotokopia.
 - Prestazio ekonomikoengatik jasotako zenbatekoen eta beste diru-sarrerara batzuen ziurtagiriak.
 - Ezarritako prezioaren hileko ekarpena egiteko erabiliko den kontu korrontearen banku-erakundea eta zenbakia.
 - Gastu kengarrien ziurtagiriak (alokairua, hipoteka-kreditua...).
- Eskatzaileak ez badu bere egoera ekonomikoa baloratzerik nahi edo ez badu behar bezala justifikatzen, zerbitzuagatik ezarritako kostu osoa ordaindu beharko du. Nahitaez sinatu beharko du hori agiri batean.
- 13.2) artikuluan jasotako egoera bada, jatorrizko udalerriko gizarte-zerbitzuen txostena, une horretan etxean jasotzen duen laguntza zehazteko.
- Udal gizarte-zerbitzuen ustez, eskaeraren inguruko erabakia hartzen lagunduko duen beste edozein dokumentazio.

Eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioa akastuna bada edo zerbait falta bazaio, eskatzaileari 10 eguneko epea emango zaio falta den dokumentazioa ekartzeko edo akatsak zuzentzeko. Hori egin ezean eskaera bertan behera geldituko dela jakinaraziko zaio.

ERMUKO UDALAREN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA ESKURATZEKO PROZEDURA

1. ORRIA

Berari buruzko datuak egiaztatu edo biltzeko baimena emango dio eskatzaileak Udalari. Eskatzaileak araudi honetan zehaztutako baldintzak betetzen dituela egiaztatze eta, hala badagokio, zerbitzua finantzatzeko baldintza eta baliabide ekonomikoak egiaztatze berrirako dituzten Udalak erabiltzailearen datuak.

Gezurrezko datuak eman edo datuak ezkutatu gero, eskaera bertan behera geldituko da, sor litezkeen gainerako erantzukizunez gain.

Ez da beharrezkoa izango dagoeneko Ermuko Udalaren esku dagoen dokumentazioa berrirako ematea.

16.3. Zerbitzuaren itxarote-zerrenda

Eskatzaileen zerrenda da zerbitzua esleitzeko lehentasunak ordenatzeko bidea, betiere sartzeko lehentasunen baremoan eskuratu duten puntuazioa kontuan hartuta.

Mendekotasuna edo mendekotasun-arriskua aitortu zaien pertsonen etxez etxeko laguntza-zerbitzua jasotzeko eskubide subjektiboa dute, eta, ondorioz, zerbitzua eskuratzeko baldintzak betez gero, zerbitzuan sartzeko itxarote-zerrendak ez du iraungo sei hilabete baino gehiago, eskabidea aurkeztu duten egunetik zenbatuta.

Epe hori igarota, udal gizarte-zerbitzuek ezin izan badiote zerbitzua eskaini eskubide subjektiboa aitortua duen pertsonari, zerbitzuari atxikitako prestazio ekonomikoa (ZAPE) jasotzeko prozedura aktibatu beharko da.

Eskaera eragin duen arrazoa «gizarte-larrialdia» dela jo bada, eskaera jaso eta hogeita hamar egunera aktibatuko da ZAPEa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan zehaztutako muga eta irismenaren baitan.

Autonomotzat baloratutako pertsonen dagokienez, eskabide guztiei aurre egiteko aurrekontu-zuzkidurarik ez badago, etxez etxeko laguntza-zerbitzurako itxarote-zerrenda berezia osatuko da. Horrenbestez, kasu horretan, eskaera jaso den dataren ordena zorrotz errespetatuz zehaztuko da lehentasuna, betiere zerbitzua jasotzeko eskubide subjektiboa duen eskatzaileak ez badago aurretik.

16.4. Baremoa

II. ERANSKINEAN zehaztutako baremoan arautzen dira eskatzaileen zerrenda ordenatzeko eta gizarte-diagnostikoaren arabera zerbitzua eskuratzeko lehentasunak ezartzeko irizpideak.

Zerbitzua pertsona batentzat baino gehiagorentzat eskatzen bada, zerbitzua eskuratzeko baremoaren ondorioetarako, arretarik handiena behar duen eskatzailearen egoera baino ez da hartuko aintzat.

16.5. Baldintza ekonomikoak

Etkez etxeko laguntza-zerbitzuak koordainketa eskatzen du, modalitatea edozein izanik ere. Ermuko Udalak urtean behin arautuko du zerbitzuaren alor hori, 21. zerga-ordenantzaren bidez.

16.6. Osasun-fitxa

Eskaerekin batera, eskatzailea artatu ohi duen medikuntzako profesionalak betetako osasun-fitxa edo -txostena erantsi beharko da. Zehazki, III. ERANSKINEAN agertzen den fitxan jasotako informazioa islatu beharko da txosten horretan.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Oro har, bi urtean behin zerbitzuaren onuradunen egoera sozioekonomikoa berrikusi egingo da, baldintzak betetzen direla eta diru-sarreretan edota ondasunetan aldaketarik egon ote den egiaztatzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza hau indarrean sartu den egunean oraindik erabaki gabe dauden eskaera guztietan goitik behera ezarri beharreko araudia izango da.

Araudi hau indarrean sartu aurretik zerbitzuaren onuradunak ziren pertsonen espedienteak berrikusi egingo dira, ordenantza honetan araututakoari egokitzeko.

AZKEN XEDAPENAK

1. Ordenantza honetan berariaz araututa ez dauden alderdiei dagokienez (hala onuradunen harira nola zerbitzua eskuratzeko baldintzen harira), Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 2015/185 Dekretua ezarriko da.

2. Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, zerbitzua eskuratzeko eskaeretan eta eskaerak tramitzatzeko erantsi beharreko dokumentazioan agertzen diren datuak Ermuko Udalaren fitxategietan eta Eusko Jaurlaritzaren Gizarte.eus fitxategian sartuko dira (edota etorkizunean horien ordezkari ezarriko diren fitxategietan, zerbitzuaren titularrari jakinarazi ondoren). Asmoa hau da: gizarte-zerbitzuek artatutako pertsonen datuak erregistratzea, erabiltzaileentzat beharrezkoak diren eskaerak eta tramiteak kudeatzea, eta eskaera egin duten pertsonen laguntza ematea, hurrenez hurren. Eskatutako datuak nahitaezkoak dira asmo hori betetzeko eta, beraz, daturik eskuratu ezean ezin izango da zerbitzurik eskaini.

Ermuko Udala da fitxategien arduraduna eta, hartara, emandako datuak ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera bermatuko du. Horretarako, idatzi bat bidali beharko da Abiapuntu udal-bulegora. Era berean, datuen konfidentzialtasuna errespetatzeko eta fitxategiaren helburuarekin bat erabiltzeko konpromisoa hartzen du Ermuko Udalak. Dena

ERMUKO UDALAREN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA ESKURATZEKO PROZEDURA

1. ORRIA

dela, gerta daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko eta lurralde historikoko beste erakunde publiko batzuei ematea, datuak jasotzeko asmoa burutzeko nahiz fitxategiaren arduradunaren legezko betebeharrak betetzeko.

Eskatzaileek euren ardurapean aitortzen dute eskaeran emandako datuak egiazkoak direla. Ildo beretik, Udalari baimena ematen diote datuen egiazkotasuna ziurtatzeko asmoz titulartasun publikoko fitxategietan kontsultak egiteko eta datuak aipaturiko fitxategietan gordetzeko, aurretiaz aipaturiko baldintzen pean. Azkenik, eskatzaileek euren egoeran aurrerantzean gerta daitezkeen aldaketa guztien berri eman beharko diote Udalari.

3. Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunera sartuko da indarrean.

4. Horretaz gain, Udalaren webgunean ere argitaratuko da. Ermuan, 2018ko XXXXren XXXX(e)an.

I. ERANSKINA. ESKABIDEA

ESKABIDEA
ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA

DATU PERTSONALAK

LEHENENGO ABIZENA		BIGARREN ABIZENA		IZENA	
JAIOTEGUNA	ESTATUA	TELEFONOA	GIZARTE-SEGURANTZAKO ZENBAKIA		NANa
HELBIDEA			HERRIA	BARRUTIA	PROBINTZIA

BIZIKIDETZA-EGOERA

ESKATZAILEAREKIN BIZI DIREN PERTSONAK				
IZEN-ABIZENAK	NANa	AHAIDETASUNA	ADINA	MINUSBALIASUNA

ERREFERENTZIAKO PERTSONA	HARREMAN-MOTA	TELEFONOA

ESKATZEN DITUEN ZERBITZUEN MODALITATEA

☐ Etxez etxeko laguntza	☐ Arreta pertsonala
☐ Etxez etxeko janaria	☐ Lagun-egite soziala

Bestelakoak (zehaztu)

Nire erantzukizunpean adierazten dut emandako datuak egiazkoak direla eta jakinaren gainean nagoela datu

**ERMUKO UDALAREN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA
ESKURATZEKO PROZEDURA**

1. ORRIA

horietan sortutako edozein aldaketa Zerbitzuari jakinarazteko betebeharrak.

Sinadura: Ermuan, 20XXkoren(e)an

II. ERANSKINA ZERBITZUA ESKURATZEKO BAREMOA

1.1.1.1.1 PPUNTUAZIOA

A. AUTONOMIA PERTSONALA / AUTONOMÍA PERSONAL						
➔	Bai Si	0 puntu	Zailtasunez (zailtasun larriak) Con dificultad (serias dificultades)	15 puntu	Ez No	30 puntu
				1.1.1.2 ESK ATZ AIL EA SOLICITANTE	1.1.1.3 BIZI KID EA CONVIVIENT E	
A.1.	1.1.1.3.1.1 Ohetik edo besaulkitik laguntzarik gabe altxatzen da Levantarse solo/a de la cama o de un sillón			0	0	
A.2.	1.1.1.3.1.2 Bere burua laguntzarik gabe garbitzen eta janzten du Realizar su aseo normal y vestirse ¹			0	0	
A.3.	Etxean laguntzarik gabe ibiltzen da edo ondo moldatzen da gurpil-aulkian 1.1.1.3.1.3 Andar solo/a en casa o desplazarse convenientemente en silla de ruedas			0	0	
A.4.	1.1.1.3.1.4 Etxetik hurbil laguntzarik gabe ateratzen da ¹ Salir solo/a de su vivienda al exterior inmediato ¹			0	0	
A.5.	1.1.1.3.1.5 Auzora edo herrira laguntzarik gabe ateratzen da Salir solo/a por el barrio o pueblo			0	0	

¹Kalera ateratzen da, baina ez du gurutzatzen / Sale a la calle, sin atravesarla

1.1.1.3.1.5.1.1

1.1.1.3.1.5.1

TOTAL

B. ETXEKO LAGUNTZA / ATENCIÓN DOMÉSTICA						
Bete lauki hau ezin baditu inork etxeke lan hauek egin Rellenar este apartado en el caso de que no haya nadie que se pueda encargar de hacer dichas tareas						
➔	Bai Si	0 puntu	Zailtasunez (zailtasun larriak) Con dificultad (serias dificultades)	15 puntu	Ez No	30 puntu
B.1.	1.1.1.3.1.6 Erosketak egiten ditu 1.1.1.4 Realiza las compras			1.1.1.5 0		

**ERMUKO UDALAREN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA
ESKURATZEKO PROZEDURA**

1. ORRIA

B.2.	1.1.1.5.1.1 Janaria prestatzen du 1.1.1.6 <i>Prepara las comidas</i>	1.1.1.7 0
B.3.	1.1.1.7.1.1 Etxea jagon eta arropaz arduratzen da 1.1.1.8 <i>Atiende la casa y cuida la ropa</i>	1.1.1.9 0

1.1.1.9.1.1.1

1.1.1.9.1.1.1

TOTAL

C. BIZIKIDETZA / CONVIVENCIA			
C.1.	1.1.1.9.1.2 Baka rrik bizi da Persona sola	☐ 30	
C.2.	1.1.1.9.1.3	☐ (0) Etxean / En casa ☐ (10) Hurbil / Cerca ☐ (20) Urrun ³ , ez dauka, interesik ez dauka / Alejada ³ , inexistente, indiferente	
C.3.	1.1.1.9.1.4 Vecinos-as	☐ (0) Laguntzeko prest / Disponibles ☐ (5) Gutxi laguntzeko prest / Poco disponibles ☐ (10) Ez dauka, harremanik ez / Inexistentes, indiferentes	

³Urrun: kontuan hartu familiak egiten dituen bisiten iraupena eta joan-etorrien maiztasuna, ez soilik distantzia.
Alejada: tener en cuenta el tiempo y la frecuencia de los desplazamientos de la familia más que la distancia propiamente dicha.

1.1.1.9.1.4.1

TOTAL

D. INGURUA / ENTORNO			
D.1.	Habitat	☐ (0) Herri-gunea edo hiria / Rural agrupado o ciudad ☐ (5) Herri-gunetik kanpo / Rural disperso	
D.2.	1.1.1.9.1.4.1.1.1 Etxebizit zako sarbidea 1.1.1.9.1.4.1.1.2 Acceso vivienda	☐ (0) Beheko pisua, igogailua / Planta baja, ascensor ☐ (5) Lehen pisua edo sotoa / Primer piso o sótano ☐ (10) Goiko pisuak / Plantas superiores	
D.3.	Dendak Comercios	☐ (0) Hurbil / Cerca ☐ (5) Urrun, heltzeko zailtasunak / Lejos, difícil acceso ☐ (10) Oso urrun edo heltzeko zailtasun handiak / Muy alejados o muy difícil acceso	

1.1.1.9.1.4.2

TOTAL

E. ETXEBIZITZA / VIVIENDA			
E.1	Oinarrizko instalazioak: (argia, ur beroa, berogailu-sistema) Instalaciones básicas: (Luz, Agua caliente, sistema calefacción)	☐ Bai / Sí (0)	☐ Ez / No (5)
E.2	Oinarrizko ekipamendua (garbigailua, hozkailua, telefonoa, dutxa, sukaldea) Equipamiento básico (lavadora, nevera, teléfono, ducha, cocina)	☐ Bai / Sí (0)	☐ Ez / No (5)

**ERMUKO UDALAREN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA
ESKURATZEKO PROZEDURA**

1. ORRIA

1.1.1.9.1.4.3

TOTAL

F. AUTOZAINZA / AUTOCUIDADO		
	ESKATZAILEA SOLICITANTE	BIZIKIDEA CONVIVIENTE
Eguneroko lanak zailagoak edo ezinezkoak egiten dituzten oroimen-arazo handiak Existencia de trastornos importantes de la memoria que hagan difíciles o imposibles las tareas de la vida cotidiana	☐ Bai / Sí (30) ☐ Ez / No (0)	☐ Bai / Sí (30) ☐ Ez / No (0)

1.1.1.9.1.4.4

TOTAL

(A+B+C+D+E+F) GUZTIRA / TOTAL	
-------------------------------	--

III. ERANSKINA. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUAREN OSASUN-FITXA

• Txostena egin duen osagilea: _____ . Elkargoa: _____ . Elkargokide-zenbakia: _____ .

• Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren eskatzailearen izen-abizenak _____
_____. NAN zenbakia: _____ .

• Osasun-arazorik handienak

A) _____ E) _____
B) _____ F) _____
C) _____ G) _____
D) _____ H) _____

• Ohiko medikazioa

A) _____ E) _____
B) _____ F) _____
C) _____ G) _____
D) _____ H) _____

• Nora ezean ibiltzen da:

• Ohiko medikazioa

☐ Bakarrik

☐ Bakarrik, laguntza teknikoarekin: ☐ Makila ☐ Taka-taka ☐ Gorpildun aulkia

☐ Beste pertsona baten laguntza

☐ Ohean

• Gaitasun kognitiboa: ☐ Normala ☐ Narriadura kognitibo arina edo ertaina ☐ Narriadura kognitibo larria edo oso larria

• Zentzumenak:

	IKUSMENA	ENTZUMENA	HIZKUNTZA
Normala edo defizit arina			
Defizit ertaina edo larria, baina egokituta			
Erabateko defizita			

• Oharrak: _____

Data eta sinadura